

NOIZKO SAGARDO MUSEOA?

AIETEKO KATXOLA BASERRIA OSO KONTUAN HARTZEKO TOKIA DA HALAKO PROIEKTUA KOKATZEKO


Asturiasen, Britainian eta Normandian, besteak beste, bada sagardorri eta sagardoari eskainitako museorik eta, aldiz, sagardoak toki kategorikoa daukan Euskal Herrian, ez dago halakorik. Gurean badaude sagardoaren inguruko antzinako tresnak eta biltzen dituzten txokoak, han eta hemen; baina, ezin esan museoak direnik. Zer eragozten du Euskal Herrian sagardo museoaren proiektua aurrera eramatea? Zergatik ez dago pedagogikoki eta ikerkuntza mailan produktu natural honen etorkizuna samurtuko eta hobetuko duen halako egitasmorik?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza saileko arduradunek adierazi dutenez, «beharrezkoa izango litzateke hainbat herri eta sagardo elkartek bat egitea, eta elkarlanean ekitea proiektuari. Ideiak sagardoaren sektorean bertan sortu eta hartu behar du indarra eta forma. Gero, erakundeak prest egongo gara mahai gainean jarritakoa aztertzeke».

Orain pare bat urte, Gipuzkoako Aldundiko ordezkariak modu honetako proiekturen bat bultzatzeko borondatea azaldu zuten. Hortaz, baldintza modura, sagardo egileek museoaren mantenuan partzea jarri zuten; berauek izango bailirateke halako proiektu bati probetxu gehien aterako lioketenak, ikerkuntzarako laborategia jarri zuten, adibidez.

Euskal Herrian sagardoak izugarritzko tokia daukan arren, oraindik ez dago kultura ondasun hori biltzen duen museorik; gure herriko sustraietan dagoen produktu naturalaren omenezko txokorik. Hamaika saiakera izan dira halako zerbait sortzeko. Herri asko prest agertu dira halako proiektuaren sehaska izateko, baina asmoak ez du oraindik itxura hartu.

Jose Mari MARTINEZ



Katxola baserria, harriz harri berreraikitako garai bateko sagardotegia.

Astigarragak, Hernanik, Urnietak, Usurbilek edota Donostiak, noiz edo noiz, azaldu dute sagardoari, bere historiari eta kulturari eskainitako museo bat bere lurretan hartzeko interesa eta gogoia; bai udal ordezkarien ahotik bai tokian tokiko elkarte

soziokulturalen bitartez. Nahiko zaila dirudi herri hon guztien interesak batu eta adostasuna lortzea, baina norbaitek saiakera egin beharko luke.

Sagardo museoaz hitz egiten hasita, Aieteko Katxola baserria aipatu izan da noizbait; nahiz eta

horrek ez duen museo egiteko toki egokiena horixe denik esan nahi. Katxola baserria, donostiarrrentzat, sagardoak lehentasunezko tokia zuen garai hartako aztarna bakarrenetakoa da, egun lozorro luzean bizi dena, biziberrituko duen erabaki politikoa-

ren zain-zain. XVIII. mendearen lehen erdialdean eraikitako baserria da Katxola, urte luzeetan baserri-sagardotegi tradizionala izandakoa. Antzinako Goiko Galtzadaren ondo-ondoa zegoen Katxola, beranduxeago Hernani eta Donostia lotuko zituen bidearen ertzean, hain juxtu. Bidea zabaldu beharrek zeharo aldatu zuen baserriaren etorkizuna, La-kuako Gobernuak monumentu izatera duen ondasun kulturala izendatutakoa. Aipatu obrak zirela medio, Katxola harriz harri deseraiki eta, bere jatorrizko txokotik metro batzuetara berreraiki zuten berriro, barruan zuen dolare zaharra mantenduz.

Kutxak hartu zuen lanaren ardura eta kasik orain bi urte, 2001eko apirilean, Donostiako Udaleren esku utzi zuen eraikuntza. Udalak oraindik ez du erabaki zer egingo duen baserriarekin. Entzun, hamaika aukera entzun dira: sagardo museo izango dela, Aieteko auzoarentzako gune soziokulturala eraikiko dutela bertan... Baina, oraindik ez dute mahai gainean jarri proiektu zehatz eta serioirik.

Astigarraga, Donostia, Hernanika Usurbil arteko lotura polita izateko moduko kokapena dauka Katxolak; guztietatik erraz iristeko moduko tokian dagoelako. Hortaz, baserria oso kontuan hartu beharko da Euskal Herriko sagardoari buruzko museoaren behin-betiko proiektu egitean.

Jose Mari MARTINEZ

Sidrería El Molino de Aoiz

lo mejor para comer...
...y mucha historia para ver.

Ven a disfrutar en El Molino de Aoiz, de nuestros Menús de Sidrería y vinosos con la Última Cosecha de la mejor Sidra del País.

El Molino de Aoiz, un histórico edificio rodeado de naturaleza, donde también encontramos una cuidada Carta de Restaurantes con la más tradicional de nuestra cocina, adaptada a los nuevos gustos.

El Molino de Aoiz es un establecimiento con capacidad para 120 comensales, ideal para celebrar la Banquete de Boda o Camarón y por supuesto disfrutar con los tapes de una reunión inolvidable.

Todos los viernes y sábados.
Ambiente Especial Sidrería.

INFORMACIÓN Y RESERVAS
Tfno.: 948 33 63 02

Donostia Indalecio Cerezo El Molino de Aoiz 31010 Aoiz (Leizor) - Navarra

IRATI

sagardotegia

• Menús de sidrería • Menú del día • Carnes y Pescados a la brasa

Tel. 948 89 05 17 • C/ Urrutia • 31680 Otzagañabia (Navarra)

Sidrería AUZMENDI Sagardotegia

Bazkaltzeko eta afaltzeko girorik onena, eta gainera... Sagardotegiko menua Garaiak sagardoa

El mejor ambiente para comer y cenar... y además... Menú de sidrería Sidra de temporada

Pol. Ind. Nave 1
(junto a Sociedad Leguinak)
31008 BARANAIN
Tfno.: 948. 18 59 57/19